



BIGARREN SEIHILEKOARI BURUZKO INFORMAZIOA

JASOTAKO DIRULAGUNTZAK

Kutxa Fundazioa: 4.956,40€. Kabugan (Rwanda) etxetxoak eraikitzeko.

Azpeitiako Udala: 11.544€. Kabugan (Rwanda) etxetxoak eraikitzeko.

Andoaingo Udala: 9.500€ Kabasareko (Rwanda) eskolako jantokiko ekipamendurako.

Cendea de Galar-eko Udała: 4.000 €. Kabugan (Rwanda) etxetxoak eraikitzeko.

Zaisa : 5.000 €. Kabugako (Rwanda) ikasleentzako beken proiektua.

Azkoitiako Udala: 5.564€. Kabugan (Rwanda) etxetxoak eraikitzeko.

Etxalarko Udala: 925€. Kabugan (Rwanda) etxetxo bat eraikitzeko.



AURKEZTUTAKO PROIEKTUAK



Finantzaketa eskatzeko egindako eskaerak

- Azkoitiako Udala: Kabugan etxetxoak eraikitzeko.
- Gandarias Fundazioa: Kabugan etxetxoak eraikitzeko.
- Kutxa Fundazioa: Kabugan etxetxoak eraikitzeko.
- Andoaingo Udala: Kabugako (Rwanda) Therese Kabasare eskolako jantokiko ekipamendua.
- Orona Fundazioa: "Kamelot" haur umezurtzak hartzeko zentroa Tanzanian.

BEHAR BIDASOAK ONARTUTAKO PROIEKTUAK



- Trans-Ekulu Eneguko (Nigeria) Ahizpa Pasiotarrek zuzentzen duten ikastetxean eguzki-panelak jartzea).
- Nyatike-Kadem (Kenya) udalerriko haurren harrera-zentroari laguntzea.
- Bibwa/Nganda-Yalako (Kongo) ahizpa pasiotarrek zuzentzen duten ikastetxeko haurren eskola-gastuak.



LAGUNTZA HUMANITARIOA

Laguntza humanitarioko 14 pakete bidali dira Rwandako misioetara.



GIZARTEA ERALDATZEKO SENTSIBILIZAZIOA ETA HEZKUNTZA

- **"Irun Munduarekin Lankidetzan"**: irailaren 29an Irungo Udalak hiriko GKEen jarduera ezagutarazteko antolatu zuen ekitaldian parte hartu genuen.
- **"Garapenean bidelagun"**: irailaren 29an Azkoitiko Udalak elkartasunaren eta lankidetzaren garrantzia aldarrikatzeko antolatutako ekitaldian ere parte hartu genuen.
- **"Euskadiko Gazteak Lankidetzan"** programaren 31. edizioan parte hartu dugu, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bitartez. Hiru gazte kooperantek bi hilabete eman dituzte Pereiran programa garatzen.
- Jarduten dugun arloei eta herrialdeei buruzko informazioa partekatzen jarraitzen dugu, hainbat kanalen bidez.
- Sei erakunderekin batera, Irungo Plaiaundi Institutuko gazteei GKEetatik egiten dugun lanaren berri emateko jardunaldi batean parte hartu genuen.



Jornada de sensibilización en el I.E.S de Plaiaundi junto a representantes de otras ONGs de nuestro entorno.



EMILIO GUTIERREZ TEJEDORREN HERIOTZA

Sentitzen dugu joan den abenduaren 29an Emilio Gutiérrez hil izana, Behar Bidasoako Batzordeko kidea. Besarkada bero bat helarazi nahi diogu bere familiari eta Emiliok Behar Bidasoarekin izan duen lankidetzeta eta konpromisoa eskertu.



Behar Bidasoa ONG

[Quiénes somos](#)
[Proyectos](#)
[Apadrinamientos](#)
[Becas](#)
[Sensibilización](#)
[¡Colabora!](#)
[¡Gracias!](#)
[Noticias](#)
[Memorias](#)



WEB ORRIA ESTREINATUKO DUGU!

Lan egiten dugun proiektuen berri izatea eta gure jarduerari buruzko informazio guztia gunere berean kontsultatu ahal izatea nahi dugu. Sare sozialetan ditugun kanalak ere berraktibatu ditugu. Jarrai gaitzazu Instagramen eta Facebooken!

URTEKO KONTUAK

Behar Bidasoaren urteko kontuak Gayca Asesoresek ikuskatu ditu eta Elkartearen Erregistroan aurkeztu dira.



HAINBAT GAI

Atzokoak abesbatzaren dohaintza:

Gabonetako kontzertu solidarioaren ostean **1.008,25€** bildu ziren eta Behar Bidasoari eman zaizkio. Eskerrik asko!

Euskadiko GKEen Koordinakundearen bileretan parte hartu dugu.

Ingurumenaren Iraunkortasunerako Sareak Pobreziaren Aurkako Borrokan egiten dituen bilera eta jardueretan parte hartu dugu.

